

Ipuinak, tabuekin hausteko

Marilar Aleixandre



Bi kontinenteren arteko mutur batean hazi nintzen, eta hiru urterekin arabieraz kontaktzen ikasi nuen (wahit, tñayn, trata, arb'a, xamsa), Ceutan etxera arraultzak saltzera etortzen zen gizon batek irakatsia. Ezkutuko aldizkarietarako panfletoak idazten ikasi nuen idazten, hauek baitziren Madrilen biologia ikasten ari nintzen garaietan aldizkaririk interesgarrienak. Egun Santiago de Compostelako Unibertsitatean egiten dut lan, beharbada heretiko izan zelako lepogabetu zuten predikari baten hilobiaren gainean katedrala eraiki duten hiri bakarra, *Tránsito dos Gramáticos*-en (1993) kontaktu nuen bezala. Beste oina Ceen dut, Costa da Morten, eta honako lan hauek bertan kokaturik daude: *Lobos nas illas* (1996), *A vaca de Fisterra* (2003) haur istorioa edo *Desmentindo a primavera* (2003) poemaria eta *Abecedario de árbores* (2006). Neure liburuek hainbat sari jaso dituzte, horien artean, *Catálogo de Venenos*-ek (1999) Esquíu saria jaso zuen, *Teoría do Caos*-ek (2001) Xerais eta San Clementes Nobela Sariak jaso zituen, eta baita haur eta gazte literaturako beste bi sari ere, Lazarillo –*A Banda sen Futuro* (1999)–, Merlín eta Galiziako Kritika Saria –*A expedición do Pacífico* (1994)– edo White Raven zerrenda –*Paxaros de Papel* (2001)–. *Rúa Carbón* (2005) da argitaratu dudana azken nobela.

Ni neu, gose nintzen

Marilar Aleixandre

Gose-urtea izan dela esaten da, baina ni, jaio naizenetik, ez dut ase-beterik gogoan. Aurreko urtean uzta txarrak egon ziren. Etengabe lan eginez Xacintok prestaturiko ereintzan, zuhamuxkak harrixkarekin liskartuz, goroldioaren izurritea etorri zen eta zekale guttia eraman. Erein ezazu zekalea, esaten zion aitak, ogi beltza jango duzue, baina ez da besterik hazten lur zital honetan, gariak ez du negua jasango. Gu ere zekale jendea gara. Uzta galtzean, Xacinto haserretu egin zen, hor nonbait lana bilatzera abiatu zen eta ez dugu berriro ere haren berririk izan. Eta honela, ene alaba, gizonak badoaz eta gu geu negua jasanez. Ni neu, berriro ere haurdun naiz, nahiz eta Saludinari oraindik ere bularra ematen diodan, goroldioarekin deuseztatu nahi izan zaitut, koskor ilunak bildu nituen, mantalaren poltsiko batean eraman nituen hainbat egunetan zehar, erabiltzeko ausardiarik izan gabe. Zekalearen hiru loreetatik bi baino ez dira hazten, hirugarrena hilaurtu. Beharbada hobea liteke. Ez ginateke honetara helduko.

Ezin dut jakin zerk eraman zintuen, sukarrak edo goseak. Gorputza dardarka zenuen, lokiak irakiten. Eta gosea etxeaz jabetzen. Ez nuen nahikoa esne Saludinentzat eta bi zineten. Bazkaltzeko, egon ziren bitartean gaztaina zimelak, patata zaharrak, lehenengo azalak. Ondoren, mendi edo muinoetan bil nezakeena, gosearen belarra, egosiriko asunak. Duela hiru egun Carmek, auzokoak, zizareek erdi-janda zegoen arbia eman zidan. Duela bi, gauerdian iratzarri eta oilotegitik arraultz bat lapurtu nion, zulo bat egin nion goitik eta beste bat behetik, gordinik xurgatu nuen. Oskola sutara bota nuen jan nezakeela pentsatu aurretik, beharada esnea aberasten du. Atzo, ezer ere ez. Gauean zekale ogi-koskor batekin egiten nuen

amets. Nola izan behar nuen esnerik odolak ere zainetatik ibiltzeari utzi bazion. Gosea, neure odoletik mamurtuz, bere lekua betetzen zihoan. Ni neu, oso-osorik, gose-sugarretan erretako faroa nintzen.

Ibaira joaten nintzen, gorputz txiki hori busti egiten nizun halako borborra baretzeko. Bat-batean zure gorputza kulunkatu zuen dardar batek, hozkirri batek. Nire altzoan lehor geratzen zara. Oihuka deitu zintudan, Cosme, Cosme, larru alferrikako batean biltzeko saioak eginez, izena kasik ahoskatu gabe. Beste umeak ulu egiten zuen. Hark heriotza sentitu zuen oholetan zirrikituetatik igaroz. Nik neuk ez. Eta orain inpotente, zure gorputza altzoan dudala, zekale puxka. Zure eskuak musuz josi nituen, zure hatzetatik azken sukarraren izerdia miazkatuz. Zure hatzak mingain azpian jarri nituen, berriro ere bero zitezen. Ondoren, ez dakit nola, hezurtxoak jariatuz topatu nuen neure burua, besoetan bizio harturik, sorbaldetan. Zure haragiarekin komuniatuz, neure haragiarekin. Cosme, Cosme. Etengabe. Neure arraultza xurgatuz. Zure haragiak neure sabelalderako itzulera bidea eginez, zure odola nirean isuriz, heriotza besteratuz. Zure izena begi arteko sukarra. Behazuna eta errautsak mingain azpian. Hezurak, zapi berri batean bildurik, kapulu azpian lurperaturik.

Saludinak negar egiteari utzi zion. Bihar zortzi urte bete izango da. Iristekotan. Bularra ematen diodanean haren hortzez bularrari hoska egiten diote, Xacintok egin bezala duela asko. Hoska egin, ene alaba, ene seme, gogor. Esnea igo da berriro ere, odolez nahasturik edo malkoz. Hoska egin, hoska gogor.